



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Donostian, 2009ko irailaren 17an

Irakasle hori,

Badakizunez, Euskal Idazleen Elkartek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntzaz, *Idazleak ikastetxeetan* izeneko programa arrakastatsua bideratzen du. Programa honek helburu argia du, idazleak eta ikasleak aurrez aurre jarritz, azken hauek euskal literaturara hurbiltzea. Honekin, gazteek literaturarekin gozatzea lortzen badugu, hainbat eta hobe.

Programak bi motatako saioak eskaintzen ditu; idazleekin solasaldiak (saio arruntak) eta literatura-bideak (txango bereziak). Jaurlaritzaren laguntza dela-eta, ikastetxeek inskripzio bat besterik ez dute ordaindu behar; saio arrunten kasuan 50€, eta literatura-bideen kasuan 200€. Beren araudiaren arabera, ikastetxe bakoitzak zikloko saio bat bakarrik izan dezake, eta ez dira 40 ikasletik gorako taldeak onartuko. Hala ere, nahi adina saio egin ditzakezue **saio osagarrien** bidez; idazle berarekin eta egun berean badira 160€/saioko kostua izango dute, beste egun batean badira 250€/saioko. Guzti honi buruzko informazioa Elkartearen webgunean duzu: www.idazleak.org . Eskariak ere bertatik egiten dira, irailaren 28an irekiko da horretarako epea, eta **urriaren 9a izango da azken eguna**. (Orri honen atzealdean dituzu eskaria egiteko jarraibideak.)


Eskari guztiak jaso, eta banaketa egin ondoren, azaroaren 2tik 6ra bitartean jasoko duzu gure erantzuna postaz.

Besterik gabe, eta gure programan parte hartuko duzulakoan,

Euskal Idazleen Elkartea

Programazio Saila

☞ www.idazleak.org helbidean sartu



☞ Destakatuan klikatu.

☞ **Idazlearen egitekoak** loturan klikatu.

☞ Saio arrunten eta literatura-bideen **informazioa irakurri.**

☞ Zure ikastetxeari dagokion **lurraldea** (Gipuzkoa, Bizkaia, Araba), eta **maila** hautatu . Zerrenda osoa ikusteko: *ikus zerrenda osoa*.

☞ Interesatzen zaizun **saioa aukeratu** (idazlea eta liburua, edota ibilbidea). ESKAERA BIDERATU

☞ Eskatzen diren **datuak bete** (IFK zenbakia ezinbestekoa da). BIDALI eta EGINDAKO ESKAERA INPRIMATU

☞ Saio bat baino gehiago nahi izanez gero, **saio osagarria** eska daiteke onarpen gutunarekin bidaliko dizuegun eskabide orriaren bidez.